

KOSTU EGITURA

Gure produktua ekoiztu eta saltzeko hainbat kostu izango ditugu. Lehendabizi beste elkarte batzuen baliabideak eta laguntzak erosiko ditugu, gure produktua azkarrago eta merkeago produzitzeko. Enpresa horietako bat garraioa izango da, hau da, gure produktua gure ekoizpen gunetik gure erosleak dauden tokietara eramango duen enpresa batekin koordinatuko gara, kasu honetan Secur. Baita ere Maquinaria Eurotec-en laguntza izango dugu, gure produktuak daukan metala sortuko dutelako. Aldi berean, merkatua hobeto ezagutzeko eta gure produktua ezagunago eta erosle gehiei iristeko, Gureak Marketing-en laguntza izango dugu. Eta azkenik gure produktuari itxura emateko Nyova enpresa diseinatzailearen baliabideak erosiko ditugu.

Lagunduko diguten enpresen aparte, lehengaiak ere erosi beharko ditugu horien artean metala, pantaila edo plaka elektronikoak aurkitzen dira.

Kostuei dagokionez, ez dakigu zehatz meatz zeintzuk izango diren, baina prozesu guztiak kontuan hartuta, 500€ inguru izango da bere hasierako prezioa.